

1) SARRERA

Iritsi gara jada ABIAN hausnarketa prozesuaren azken txanpara. Azaroan abiatu genuen prozesua bi fasetan banatu genuen. Lehen urrats bezala entzute faseari eman genion hasiera. Fase emankor horretan jasotako ekarpenetatik eztabaidarako tresna izan den txostena osatu eta otsailaren azken asteburuarekin batera ekin genion, txostena oinarri, eztabaida prozesuari.

Guztira 284 batzar eratu dira Euskal Herri luze zabalean eta beste bana Paris eta Bartzelonan eta ia 5000 pertsonak osatu dituzte batzarrok.

Eztabaida fasea hiru botetan banatu genuen. Lehen botean (otsailak 27 - martxoak 5), azken urteetako balantzea eta gaur egungo testuinguru politiko eta soziala izan genituen eztabaidagai eta etorkizunerako txostenak planteatzen duen tesi nagusia izan genuen bozketa-gai. Tesi nagusi honek batzarkide guztien %81aren babesa jaso zuen.

Bigarren batzarretan (martxoak 12- martxoak 19), onartutako norabide orokor horren garapena izan dugu eztabaidagai 4 atal nagusitan banatuta: Proiektu Politikoa, Estrategia, Gatazkaren ondorioen konponbidea eta Antolaketa Egitura. Batzarrek azpi atal bakoitzari emendakinak aurkeztu ahal izan dizkiote eta %5-eko batzar kopurua (14 batzar) edo/eta, kopuru horretara iritsi gabe, parte hartzaile guztien %5a (240) ordezkaturik dauden batzarrek onartzen badute, emendakin horiek hirugarren batzar guztietara pasako dira eztabaidatuak izateko.

Emendakinez gain, ardura eta erantzukizun handiz jaso ditugu herri eta auzoetatik egindako ekarpen eta hausnarketa guztiak. Jakitun gara gai ezberdinek sortzen duten interesa eta kezka, gure nahia baita denok batera garatu behar dugun bide hau ahalik eta kohesio eta konbentzimendu handienarekin aurrera eramanez izatea. Honenbestez, emendakin bezala aurkeztu ez diren edo gutxiengo babesa jaso ez duten kezka eta ekarpen garrantzitsu eta errepikakorren erantzuna eman nahi izan dio Talde Eragileak. Hori horrela, hiru mailatan sailkatu ditugu ekarpenak:

- %5-a gainditu dituzten emendakinak: hauek apirilak 16ko batzarretara joango dira eztabaidatu eta erabakiren bat hartzera.
- Hobekuntzak eta ekarpenak: ABIAN dokumentua aberaste aldera, txosten definitiboan jasoko ditugun puntuak barnebiltzen ditu. Dokumentu honetan azalpen txiki bat besterik ez da egiten hauetaz.
- Etorkizuneko erronka eta askatu beharreko korapiloak: argi utzi dugu hasieratik, Abian eztabaida prozesuaren helburua Ezker Abertzale osoarentzat orientabide estrategikoa finkatzea izan dela, beraz, ezin ditu afera/korapilo guztiak erresolbitu. Ondorenean atalkako sakontze ariketa zehatzagoak egiteko mandatua uzten du prozesu honek, dagokion gaian dagokionari. Dokumentu honetan jasotzen ditugu atal honetan gehien errepikatu diren gaiak.

| | %5-etik GORAKO BABESA LORTU DITUZTEN EMENDAKINAK (batzarretan bozkatzeko) | HOBEKUNTZAK (testu definitiboan jasotzeko) | ETORKIZUNENKORAK ETASAKATU BEHARREKO KORAPILOAK (aurrera begira lantzeko) |
|-----------------------------|--|---|---|
| PROIEKTU POLITIKOA | | <ol style="list-style-type: none"> 1. Abian, euskaratik eta euskaraz. Euskal Herri Euskalduna 2. Feminismoa ardatz, birformulatu/osatu 3. Ekologismoa 4. Laikotasuna 5. Internazionalismoa 6. Antimilitarismoa 7. NATO | <ol style="list-style-type: none"> 1. Proiektu politikoaren garapenean sakontzea (feminismoa...) 2. Sozialismoa: nolako da eraiki nahi dugun jendarte sozialista? (subjektu eraldatzaile - iraultzailearen definizioaren gaurkotzea) 3. Nazioarteko politikaren argitzea 4. Ekologismoa |
| ESTRATEGIA | 1. Desobediencia Zibila | <ol style="list-style-type: none"> 1. Euskaraz bizitzera iristeko eraldaketa soziala eragin behar dugu, hizkuntza komunitate euskalduna berrosatuz 2. Hizkuntza Politiko Berria ardatz 3. Ikuspuntu sozialaren txertaketa proposamen taktikoetan 4. Nazio identitatea | <ol style="list-style-type: none"> 1. Estatuaren izaera konfederalaren zehaztapena 2. Euskal Herriko estrategia feministaren birkokapena. |
| GATAZKAREN ONDORIOAK | 1. Presoen afera (Gatazkaren ondorioak) lantzeko antolakundea | | 1. Gatazkaren konponbidearen lerroaren sakontzea eta zehaztapena |
| ANTOLAKETA EGITURA | <ol style="list-style-type: none"> 1. Ezker Abertzalea, erakunde ezberdinez osatutako blokea 2. Herri Mugimenduaren dinamizazioarako antolakundea 3. Hirukoaren Zuzendaritza (kolegiatua) | 1. Euskararen ezagutzan ez ezik, euskararen erabileran ere eredu izan behar du Ezker Abertzaleak | 1. E.A.ren proiektu eta praktika politikoan koherentzia feminista bermatzeko bitartekoak (prozesu feministaren berrezaugarritzea). |

2) %5-etik GORAKO BABESA LORTU DITUZTEN EMENDAKINAK

1. ENMENDAKINA: Desobedientzia zibila

Emendakina:

Estatuek Euskal Herriarekiko bideratzen duten politika itxia ikusita, desobedientzia zein intsumisioa konfrontazio politikoan, sozialean zein instituzionalean garatu beharreko borroka moldetzat ditugu, hori izango baita inposatu dizkiguten eta inposatu nahiko dizkiguten arau juridiko, politiko zein ekonomiko zapaltzaileei aurre egiteko bide eraginkorrenetarikoa. Desobedientzia zibila gehitu behar diegu egungo borroka moldeei.

Zentzu horretan, indartu nahi diren erresistentzia eta desobedientzia mugimenduak ez dira borroka sektorial zehatz batera mugatzen. Aipatzen ditugun bi borroka molde horiek eraldaketaren alde dauden borroka sektorialetan zein globaletan murgilduta dauden dinamika guztien praktika soziala izan behar dutelakoan gaude, eredu politiko, ekonomiko, sozial eta kultural berri baten sorreraren alde lanean diharduten talde sozial, sindikal, politiko eta instituzionalek garatu behar dutena, hain zuzen.

Nola ez, bide hori ez dago konfrontaziorik gabe bideratzerik. Tentsio soziala egongo da, enfrentamendua alboratzea ezinezkoa izango da, baina konfrontazioak neurtua izan beharko du ezinbestean, askapen prozesuan jendarteak ulertzeko eta protagonizatzeke neurrikoa izan behar baitu. Konbentzimendutik irabaziko dugu eraldaketa, ez inposiziotik. Aldiz, jendarte konbentzitu gabe bidea gehiegi tentsionatzen badugu, herritarrek dinamikatik baztertuko ditugu. Ez dugu ahortzi behar hori. Herri erresistentziaren eta desobedientzia zibilaren bidean, gaiaren eta testuinguruaren arabera tentsionatze mailakaturik bideratu beharko dugu ezinbestean, gai eta testuinguruak ezberdinak direlako.

Egungo egoera sozio-politikoak ikusirik, inoiz baino premiazkoagoa da, ekintza zuzenez gain, herri erresistentzia eta desobedientzia zibila modu masibo eta antolatuan berehalak prestatzea, azken urteetan jasaten dugun ereduaren krisialdi globalak herritarron eta herrion eskubide zibil, sozial, kultural, politiko edota ekonomikoen aurkako eraso antidemokratikoa indartu baitu. Urrats horiek milaka herritarrek modu kolektiboan bideratzen badituzte, eraldaketa prozesua indartuko litzateke, inolako zalantzarik gabe. Baten konpromisoa bada, eragina eskasa da, baina milaka pertsona bada, atzera biderik gabeko jardura eraldatzaile bilakatzen da. Norbanakoengandik hasi eta talde osoen inplikaziora iritsi arte zabaldu behar dira herri erresistentzia eta desobedientzia zibila, bakoitzak erabakitzen duen maila eta erritmoa errespetatuz.

Sistemak errepresioa areagotuko du eta Ezker Abertzaleak beharrezko tresnak garatu beharko ditu horren ondorioei aurre egiteko, abokatu sarea, isunei aurre egiteko dinamikak etab... Baina bide horretatik, sistemak bere burua deslegitimatuko du, gero eta ahulagoa den bere hegemonia galduz. Horrela ulertuta, herri erresistentzia eta desobedientzia zibila aldeakartasunean oinarrituriko bideak dira. Ez dute egungo ereduaren eraldaketa bidean sistemarekin elkarrizketa eta akordioak bideratzeko aukera ixten, baina ez gaude horren zain eta, batez ere, ez da hori borroka bide hauen helburua. Herri erresistentziaren zein desobedientzia zibilaren borroka

moldeen helburua eredu alternatibo berria konpromisoen bidez gaurdanik eraikitzen hastea da, arloka eta globalki, atzerarik gabeko prozesu soziala eraikitzea, alegia.

Talde eragilearen erantzuna:

Desobedientziaren inguruan aurkeztutako enmendakina ez dugutesi orokorraren aurkakotasunean kokatzen, aldiz, gure ustetan desobedientzia eredu berriaren norabide, ezaugarritze eta funtzioek eraikuntza egitasmoen logikan eta artikulatu nahi dugun gehiengo hegemonikoaren babesaren beharra azpimarratu beharreko ideia nagusiak direla uste dugu.

Hona hemen Abianeko idazketa definitiboan jasotzea proposatzen dugun testua:

Artikulazio hegemonikoek behar-beharrezko dituzten polarizazio/mobilizazio prozesuak gizarte zibilean sustraitzen dira, eta, beraz, herri mugimenduari demokratizazio prozesuaren baldintza sortzaile eta berme izatea dagokio hein handi batean, instituzioak baldintza berri horiek egikaritzera bultzatzearekin batera.

Aurrez aipatuenez, fase honetan, erresistentzia jarduerak agortutzat eman gabe, egitasmo alternatiboen eraikuntzak hartu behar du nagusitasuna. Maila orotako eragiletzan – soziala, kulturala, intelektuala, akademikoa,...- ekarpen determinantea eta iraunkorra egiteko prestatu behar dugu. Ekintzailatza sozial sendoa behar du prozesu independentistak, eguneroko txinaurri lana. Orain arteko esperientziak berrikusi eta birsortzeaz gain, praktika emanzipatzaile gaurkotuetan esperimentatzeko prestatu behar gara.

Horrekin batera, burujabetzaren aldeko dinamika politikoa elikatuko duten mobilizazio, protesta eta desobedientzia eredu berrietan sakondu behar da, eremu instituzional, politiko zein sozialean.

Herri desobedientzia borroka sektorialetan zein globaletan murgilduta dauden dinamika guztien praktiketako bat izan behar dutelakoan gaude, eredu politiko, ekonomiko, sozial eta kultural berri baten sorreraren alde lanean diharduten talde sozial, sindikal, politiko eta instituzionalek garatu behar dutena, hain zuzen.

Desobedientzia bide hori konfrontazio demokratikoa elikatzea eta adieraztera dator, jendarteak ulertzeko eta protagonizatzekeo neurrikoa izan behar baitu. Beraz, herri desobedientzia modu masibo eta antolatuan bultzatzea goaz azken urteetan jasaten dugun ereduaren krisialdi globalak herritarron eta herrion eskubide zibil, sozial, kultural, politiko edota ekonomikoen aurkako eraso antidemokratikoa indartu baitu. Norbanakoengandik hasi eta talde osoen inplikaziora iritsi arte zabaldu behar da herri desobedientzia, bakoitzak erabakitzen duen maila eta erritmoa errespetatuz.

Bide horretatik, estatuak bere burua deslegitimatuko dute, gero eta ahulagoa den bere hegemonia galduz. Horrela ulertuta, herri desobedientzia aldebakartasunean oinarrituriko bidea da. Ez du egungo ereduaren eraldaketa bidean sistemarekin elkarrizketa eta akordioak bideratzeko aukera ixten, baina ez gaude horren zain eta, batez ere, ez da hori borroka bide hauen helburua. Herri desobedientziaren helburua sortu nahi dugun estatu berriaren mami askatzailea konpromisoen bidez gaurdanik eraikitzen hastea da, arloka eta globalki, atzerarik gabeko prozesu soziala eraikitzea, alegia.

2. ENMENDAKINA: Presoen afera (Gatazkaren ondorioak) lantzeko antolakundea

Emendakinaren norabidea:

ABIAN txostenaren 4.4 atalean (Gatazkaren ondorioak, konponbidearen lerroa), 4.4.1. azpiatalean (Euskal preso eta iheslariak etxeratzea) eginiko planteamenduari zenbait kritika eta proposamen alternatibok bat egin dute kontu batean: euskal preso eta iheslari politikoen aldeko dinamika garatuko duen antolakunde baten beharra, izaera herritarra, publikoa eta espezifikoa izanik, ezker abertzalearen antolakundea izango litzateke (eta horregatik, beste proposamen batzuetan, antolakunde horrek ezker abertzalearen zuzendaritzako partaide ere izango litzateke).

- Borroka ideologikoa: euskal preso politikoen izaera politikoa aldarrikatu, egungo legedi bereziaren desaktibazioa eta legedi arruntaren aplikaziotik haratago amnistiaren aldarria gizarteratu beharko du, bere jarduera nagusia ardatz honen inguruan kokatuaz.
- Errepresioari ere aurre egiteko antolakundea izango litzateke (proposamen batzuetan)
- EPPK-ren barne eztabaidak artikulatu ahal izateko beharrezkoak diren mekanismoak eta egiturak ezartzea
- EPPK eta EIPKren eragiletza bermatzeko neurriak sortu eta elikatzea
- Euskal preso eta iheslariak aktibo militanteak izateko, Ezker Abertzalearen ildoan eta estrategien berri izan dezatela
- Gatazkaren konponbide demokratiko adostua bermatuko lukeen alde bikotasuna aldarrikatzea, horretarako EPPK eta EIPKren bozeramaileen balioa mahai gaineratuz.

Talde eragilearen erantzuna:

Gatazkaren konponbidearen atalak tesi orokorrarekin bat egiten duen ibilbide bat marrazten badu ere, kontziente gara hurrengo hilabeteetan eztabaida sakonagoa beharko duen atala dela honakoa, Ezker Abertzaleak egokien ikusten dituen mekanismoen bidez garatu beharko duena. Hau esanda, aldiz, garrantzitsua iruditzen zaigu Abianek bai zehazten duenaren inguruan indarra jartzea.

Lehen ideia nagusia da Estatuak blokeoa ezarri dutela gai honetan estatu erabaki baten ondorioz. Ez dago epe motzean negoziazio mahai baterako aukerarik. Orain arte Ezker Abertzaleak hamarkadetan zehar garatutako negoziazio eskema, beraz, hautsia da. Eta honek ondorio batera garamatza: gatazkaren konponbidea Euskal Herrian garatzen dugun borroka eta dinamikaren baitan emango ditu bere fruituak, edo ez da izango.

Ezker abertzaleak Euskal Herria libre baten norabidean, Estrategia Independentista Eraldatzailearen aldeko hautua egiten ari da. Eta estrategia horretako ardatz nagusiak herritarron aktibazioa eta indarra biderkatzea da, momentu batean, Estatuaren aldetik itxikeria jarraitzen

badu beraiekin konfrontatzeko. Baina argi dugu, ez dela ezker abertzalea estatuen aurrean konfrontatu behar dena, Herria baizik.

Gatazkaren konponbidearen atala, beraz, logika berdinean kokatzen dugu. Konponbidearen lerroa estrategia politiko orokorraren garapenaren baitan ulertzen dugu. Gatazkaren ondorioak konpontzea ez dago soilik ezker abertzalearen esku, Herriaren esku depositatu nahi dugu. Gure ustetan, konponbidearen lerroa estrategia orokorra kokatzen laguntzen du, estrategia horren elementu elikatzailea da. Atal honetan lortzen ditugun urratsak estrategia orokorra indartuko dute eta alderantziz. Honenbestez, eta indar metaketa eta herri presioa ahalik eta handiena izan dadin, gure historia, errelatoa eta irakurketarekin ados ez daudenekin ere garatu beharko dugun bidea da. Zertan batuko gara besteekin? Oinarrizko eskubideen defentsan, aldarrikapenean eta borrokan. Zertarako? Gure erabaki propioak hartzeko, eta estatuen aurrean herri bezala erantzuna emateko.

Baina Ezker Abertzaleak bere istorio propioa du, bere irakurketa propioa. Eta Abian dokumentuan defendatzen den bezala, Ezker Abertzaleak horri uko egitetik urrun, gatazkaren izaera politikoan, preso eta iheslarien aldeko mezu propioak lantzen eta gure errelato propioaren aldeko lanean indarrez jarraituko du.

Preso eta iheslarien borroka estrategia orokorraren norabidean kokatzen dugu, gainontzeko antolakundeena bezala. Preso eta iheslari politikoak dira estrategia independentistan gurekin batera bidea egingo dutelako, eta preso eta iheslari politikoak dira, koiuntura eta estrategia taktikoen gainetik, Ezker Abertzalearen proiektu politikoaren militanteak direlako. Estrategia hau elikatzeko emango dituzten urrats guztiak, beraz, ekimen politikoak izango dira.

Behin ABIAN txosteneko puntuak gogorarazita, honako arrazoiak direla medio ez dugu uste emendakinean egiten den proposamena egokia denik:

- Euskal preso eta iheslari politikoaren etxeratzea azkartzeko euskal herritarren artean landu beharreko adostasun sozialak izan behar du ardatza. Adostasun hori presio sozial aktibo eta eraginkorra bihurtzeko elementu eraginkorrenak bihurtuko ditugu lanketa sozialaren muina: sakabanaketaren amaiera, presoaren aurkako legedi berezituaren indargabetu beharra eta orokorrak diren aukerak baliatzeko bidea irekitzea, egoera larrienak bizi direnen irtenbide berehalakoak
- Estatuei atal honetan eragin digun baina estrategia bere osotasunean kaltetzen duen blokeoari ere erantzutea ahalbideratuko duen ildo honek badu funtsezko oinarri bat: atal honetan ERE estatuekiko konfrontazio demokratikoa gorpuztea eta adieraztea, euskal herritarren borondatearen errespetuan eraikitzeko geroa. Hortik baldintzatu dezakegu estatuek duten “giltza”ren erabilera. Indar metaketa handia garatuta daukagun arloa izaki, estatuekiko konfrontazioa strategiaren elikatzailea bihurtu behar dugu, konfrontazioa “ezker abertzalea-estatuak” parametroetatik atereaz eta Euskal Herria, euskal jendarte eta estatuen artekoaren konfrontaziora eraman, deslotura edo deskonexio premia horren adierazgarri nabarmena bihurtuta.
- Horrexegatik, ubide nagusia horixe izanik, ezker abertzaleak berebiziko ahalegin egin behar du euskal preso eta iheslarien etxeratzea azkartzeko urratsak adosteko eta horien

aldeko presio eraginkorra beste hainbat eragile sozialekin partekatutako adostasunen gainean eraikitzeko (Ipar euskal Herrian gorpuztu den dinamika litzateke erreferentzia). Bide honen elikatze eta dinamizazioa izango da lehentasuna.

- Argi dago, ezker abertzaleak bere eginkizun propioak landu behar dituela auzi honi dagokionez, eta bere ekimen propioak (baita mobilizazio arlokoak ere) landu behar dituela (espexetako martxa, ap17ko manifa....) EPPK eta EIPKrekiko egiteko eta ardurak ere bereganatuaz, jakina. Baina horretarako bestelako irtenbidea da ABIAN bere baitan proposatzen duena (eta hainbat batzarretan espresuki azaltzea eta zehazteko eskatu dena), alegia, Sorturen barnean gatazka gainditze arloa birdefinituta, gatazkaren muinari dagokiona eta ondorioen atalari buruzkoa bereizita, euskal preso eta iheslarien etxeratzearen aldeko dinamikaren osotasunaz eta ezker abertzalearen zeregin propioaz ere berriaz arduratuko den atal finko bat osatzea.
- Preso eta iheslarien izaera politikoaren defentsa bideratzeko, gure kontakizunaren presentzia errelatoa osatzean, euskal gizartearen memoria zehaztean gatazkaren izaera eta muin politikoaren aitortza lantzea,.... Ezker abertzaleak sustatu beharreko ildoak dira baina lanketa hori ezin daiteke era egokian burutu, ez dinamizazioari dagokionez, ez gauzatzeari dagokionez, ezker abertzalearen antolakunde osoak eta espezifikoak sortzearen bidez. Are gutxiago egungo errepresioari aurre egiteko zereginekin nahastuaz.

Beraz, hauxe litzateke bozketan argitu beharreko hautua:

- Ezker abertzaleak euskal preso eta iheslari politikoaren aldeko dinamika garatuko duen antolakunde berezitu bat sortzea

ala

- Ez sortzea halakorik, ezker abertzalearen eginkizun propioak Sorturen barneko atal baten bidez bideratuaz (ABIAN txostenak proposatutakoari jarraikiz eta Sorturen berrantolaketan konpromiso zehatza bilduaz).

ANTOLAKETA EGITURA - GOGOETA OROKORRA

Antolakuntza mailako edozein planteamenduk bi ikuspuntu kontutan hartu behar ditu gutxienez: batetik, Ezker Abertzalearen ibilbidean izandako esperientzia organizatiboa; bestetik, aurrera begira planteatzen den estrategia politikoa.

Atzera begira, eta gehiegi ez luzatzearen, gogoan hartu nahi dugu 90. hamarkadaren erdialdean egindako gogoeta. Konfrontazio parametroak Ezker Abertzalea vs. Estatua eskemara mugatzeko joerarekin apurtzeko asmoz, nazio eraikuntzaren ildoak indartzeko apustua egin genuen, Euskal Herria vs. Estatua(k) benetako gatazka politikoa azalarazteko xedez. Garai horretan, indar guztiak Ezker Abertzalearen barruan antolatu ordez, herri dinamika autonomoak sustatu eta aliantzak eratzeari garrantzia eman genion. Lehendik emandako urratsei jarraiki, sindikatuak erabateko autonomia hartu zuen eta gehiengo sindikalaren sorrerari bide eman zion. Orduko gazte antolakundeak gazte mugimendu zabal eta anitza sustatzeko apustua egin zuen. Ildo

beretik, Ezker Abertzalearen inguruan eratutako beste hainbat erakundek (ikasleak, feministak, euskaltzaleak...) bere izaera propioa hartu zuten, herri mugimendu gisa ibilbide autonomoari ekinez eta Euskal Herriaren eraikuntza bidean bakoitzak bere esparruan aliantzak sortuz. Era berean, herri mugimenduarekiko batzuetan izandako dirigismo joerak baztertu eta herrigintzan eredu izatean oinarritutako dinamizazio eredu lehenetsi zen. Beste eragile sozial eta politikoekin elkarlanean, Euskal Herria egituratzeko egitasmoak martxan jarri ziren hainbat alorretan eta udaletan oinarritutako instituzio nazionala eratu zen. Nazio eraikuntzaren dinamika horrek bere mugak ere izan zituen. Eta ilegalizazio garaiak bere garapena eten zuen maila handi batean. Zutik Euskal Herriaren ondotik, ez zaio herrigintzari eta estatugintzari bere dimentsio osoan heldu, balantzean azaltzen den bezala.

Aurrera begira, hiru planotan antolatzea eskatzen duen prozesu independentista eraldatzailea planteatzen dugu: batetik, Ezker Abertzalea bera, mugimendu politiko bezala; bestetik, EH Bildu eta EH Bai, indar metaketarako erreferentzia politiko-instituzional nagusiak; eta hirugarrenik, prozesu independentista eraldatzailearen agendan jendarte eredu berri baterako aldarrikapenak eta egitasmoak txertatzeko lan egingo duen Herri Mugimendua eta herri egitasmoak. Hauekin batera, prozesu independentista eraldatzailean parte hartu nahi duten guztien artean definitu eta eratu beharreko zuzendaritza kolektiboa proposatzen dugu, prozesuaren agenda kudeatuko lukeena. Puntu honetan, hasierako dokumentua zuzentzen duen erredakzio berria proposatzen du Abianen Talde Eragileak. Izan ere, hasierako dokumentuan herri mugimenduaz 5.1 puntuan hitz egiten da, alegia, herri mugimenduetan dabiltzan ezker abertzaleko kideez hitz egiten denean. Baina Herri Mugimendua eta herri egitasmoek atal berezi bat behar dute (5.3), ardatz horrek estrategia berriaren duten balioa kokatzeko.

5.3 Herri mugimendua eta herri egitasmoak, eragile estrategikoak

Nazio, langile nahiz emakume bezala zantzen gaituen sistema auzitan jarri eta eredu berri baterako oinarriak sortzeko ariketa teoriko nahiz praktiko etengabea dihardu Herri Mugimendua eta herri egitasmoak. Ikuspegi horretatik, garrantzia estrategikoa izan dute, badute eta aurrerantzean ere izango dute Ezker Abertzalearentzat. Baina gainera, hautabide independentistari begira eginkizun garrantzitsua aitortzen diegu.

Estrategiaren atalean azaldu bezala, Prozesu Independentista Eraldatzaileak ubide nagusi bat izan behar du, euskal gizartearen sektore zabalekin konpartitutako prozesu herritarra. Eta era berean, prozesu horrek kontrabotere espazio bat ere barnebildu behar du bere baitan. Alegia, batetik herri agenda komun bat behar dugu eta herri agenda komun hori kudeatuko duen zuzendaritza kolektiboa; eta bestetik, agenda horretan bere aldarrikapenak jaso eta gauzatu daitezten lan egingo duen herri mugimendu eraldatzailea, eredu berri baten norabidean. Euskal Herriko eskubide sozialen Karta bezalako egitasmoak, euskal estatu feministari begira egindako gogoetek edota euskalgintzak egin dezakeen ekarpenak balio handia dute ildo horretan.

Mugimendu feminista, euskalgintza, hezkuntza eragileak, aldaketa sozialaren aldekoak, ikasle eta gazte mugimendua, ekologismoa edota internazionalismoa, besteak beste, aliatu estrategikotzat jotzen ditu Ezker Abertzaleak. Balio estrategikoa dute, halaber, elikadura burujabetzarako sareak edota energia kooperatibak bezalako egitasmoak. Beren autonomiarekiko erabateko errespetutik abiatuta, herri mugimendu eta egitasmoak sustatzea izango da Ezker Abertzalearen eginkizun eta lehentasun. Euskal Sozialismoaren egitasmo estrategikoaren norabidean, herrigintzan diharduen komunitatea izan behar du Ezker Abertzaleak.

Laugarren plano batean, prozesuaren zuzendaritza kolektiboa definitu eta gorpuztu beharko da, berau sustatu nahi duten eragileen artean. Gauzak horrela, Ezker Abertzalearen kidegoa Ezker Abertzalean ez ezik beste bi eremuetan ere antolatzeko apustua egin beharra dago. Indar gehienak Ezker Abertzalean inbertitzea akats estrategikoa litzateke, strategiaren garapena bera oztopatuko lukeena. Honek ez du esan nahi Ezker Abertzalearen antolakuntzan berrikuntzarik planteatzen ez denik, ezta gutxiago ere. Areago eta gehiago, erabateko iraultza organizatiboa planteatzen da, bi zentzutan:

Batetik, ezker abertzale osoaren erreferentzia eta bilgune izango den erakundea (bir)sortzea planteatzen da. Gaur gaurkoz Sortu izena du erakunde horrek. Baina aurrera begira planteatzen den izana ez da azken urteotan ezagutu dugun Sorturena. Mugimendu baten aberastasun guztia bilduko duen erakundea behar dugu, alderdi klasikoen eredutik urrun. Areago eta gehiago, eremu politiko-instituzional soilari begira baino, strategiaren ardatz gisa hartu dugun herrigintzari begira egon beharko du Sortu eraberrituak. Izan ere, eremu politiko-instituzionalean EH Bilduk hartuko baitu gero eta gorputz propio gehiago, EH Bildu / EH Bai herrietan sustraituz eta norbanakoen zuzeneko parte hartzea ahalbidetuz, EH Bildutik EH Bildura /EH Baitik EH Baira hartuko dira erabakiak gero eta gehiago.

Bestetik, kultura politiko eta praktika politiko berri bat martxan jartzea planteatzen da: eredu demokratikoa finkatzea, erabakiak hartzean eta ardurak hautatzerakoan; eztabaidak zabaltzeko bideak jartzea; gardentasuna bermatzea; antolakundearen jakintza edonorentzat eskuragarri egotea; elaborazio eta balantze sistematikoa, autokritika ahalbidetuz; transmisio hutsa egin ordez, egitura bitarteko eta aukerak eskaintzeko erabiltzea; militantziaren ahalduntzea; eraginkortasuna hobetzea; errealitatearen gaineko ezagutza hobetzea; elkarrizketa gaitasuna sustatzea; komunikazio politiko berritzea... Irizpide hauen gauzapenak berrikuntza izugarria suposatuko luke, laugarren edo bosgarren erakunde bat sortzea baino askoz sakonagoa.

Hau guztia nola gauzatuko den ez du zehazten Abianeko txostenak. Ez baita hori bere funtzioa. Eta ematen du horrek asegabe utzi dituela hainbat lagun. Horren eraginez, erakunde berriak sortzea proposatuz batzarren %5 baino gehiagoren babesa jaso dute hiru tesi alternatibok; bada laugarren tesi bat, Sortu, LAB eta Ernairen arteko zuzendaritza kolegiatua planteatzen duena. Alabaina, Abianeko Talde Eragilearen ustez azken urteotan egondako hutsune organizatiboaren konponbidea ez datza erakunde berrien sorreran edota zuzendaritza kolegiatuetan, baizik eta aipatutako hiru elementu horietan:

- Prozesu independentista eraldatzailea garatzeko, hiru planoen arabera antolatu eta aktibatu behar dira indarrak: Ezker Abertzalea; EH Bildu/EH Bai; eta Herri Mugimendua. Laugarrenik, prozesuaren zuzendaritza kolektiboa definitu eta gorpuztu beharra dago. Ezker Abertzalearen antolaketari dagokionez, sinplifikaziora eta eraginkortasunera jo beharko litzateke.
- Ezker Abertzaleak erakunde berriak baino, mugimenduaren kapital politiko eta humanoa bilduko duen egitura/sare/tresna politiko behar du. Sortu birfundatu beharra dago horretarako. Abian eztabaidan egin bezala, Ezker Abertzale osoak parte hartu behar du birfundazio horretan. Eta Ezker Abertzale osoaren parte hartzea izango da, hain zuzen ere, egitura/sare/tresna politiko horren ezaugarritzean asmatzeko gakoa.

- Kultura eta praktika politiko berriari heldu behar dio Ezker Abertzaleak. Hitzez eta ekintzez. Ez gara soilik azken urte hauetan garatutako eredu aldatzeaz ari. Lehenagotik datozen keriak zuzendu, gure tasun historikoak zaharberritu eta tasun berriak garatzeaz ere ari gara.
- Laugarren elementu bat gehitu nahi dugu. Talde Eragilearen ikuspegitik, Abian prozesuarekin ez da Ezker Abertzalearen antolaketaren inguruko gogoeta amaitzen. Zutik Euskal Herriarekin irekitako ziklo berrian egokitzapen organizatiboak egon beharko dira, estrategiaren garapenaren arabera. Aipatutako hiruak dira une hauetan hartu beharreko erabaki potoloak eta horien gauzapenak tamainako denbora eta energia inbertsioa eskatuko du.

3) ANTOLAKETA EGITURA ATALEKO EMENDAKINAK

3.EMENDAKINA: Ezker Abertzalea, erakunde ezberdinez osatutako blokea

Emendakina:

Hemen aurkezten dugun proposamena aipatu tesi eta funtzionatzeko modu hori ezeztatzeraz dator, eta era berean antolakuntza eredu estruktural zehatz bat proposatzeraz, nahiz eta beraz irekia izan.

Orain arte antolaketaren puntuari buruz idatzitakoa kontuan hartuz, honako antolakuntza proposamena kontuan hartzea proposatzen dugu:

- Askapen prozesuaren estrategia orokorraren dinamizazio politikoa ezker abertzalea osoaren erantzukizuna da, bere osotasun organizatiboarena, bere militantzia osoarena eta ekarpena egin nahi duen jarraitzaile ororena.

(Hau da: dinamizazio politikoak eta estrategia orokorrak ezker abertzale osoaren (bere osotasun organizatiboa kontuan izanik) eskuetan egon behar du, antolakunde guztiek autonomia izan behar dute, baita beste antolakundeekin kolaboraziorako esparruak eta estrategia orokorrari begirako norabidetze eta erabaki globalerako filosofiari dagokionez abian prozesuak berak dituen mekanismo malgu eta hedatzaileen antzekoak izan behar ditu).

- Ezker abertzalea honako tresnez osatua egon daiteke maila estruktural batean:
 - **Sortu:** masen herritar batasuna. Borroka intituzionalaren dinamizatzailea indar ezberdinen metaketarako zein intituzio eta herri mugimenduaren arteko zubi hartzailea. Sortuk ez du izan behar ezeren erdigunea baizik eta ezker abertzaleko adierazpide zein sentsibilitate ezberdinen hartzailea.
 - **Ernai:** Antolakunde iraultzailea. Gazte mugimenduaren dinamizatzailea.
 - **LAB:** masa sindikatua. Lantegietako soldatapeko langile klasearen dinamizatzailea.
 - **Antolakunde internazionalista:** Antolakunde iraultzailea. Borroka internazionalistaren dinamizatzailea.

- **Ikasle sindikatua:** Antolakunde iraultzailea. Ikasle mugimenduaren dinamizatzailea.
- **Errepresioaren aurkako antolakundea:** masa mugimendua.
- **Antolakunde feminista:** antolakunde iraultzailea. Mugimendu feministaren dinamizatzailea.
- **Antolakunde iraultzailea / herri boterea:** Antolakunde iraultzailea.
- **EPPK/EIPK:** kartzeletako borroka. Erbestea.(...)

Antolakuntza eredu honek aniztasun organizatiboa bermatzen du; ezker abertzalearen emari historikoa biltzeko zein hedatzeko gaitasuna du; militante berrien fabrika izateko oinarriak jartzen ditu; borroka esparru ezberdinek duten garrantzia estrategikoa orekatzen du, inbutu ikuspegia sor dezaketen nagusitasunei lekurik eman gabe; eta kontraesanak kudeatu zein konpondu daitezkeen esparruei lekua eman diazaioke, askapen mugimenduaren beraren zabaltzea malguago egiten duelarik era hedakor batean.

Eredu hau ez litzateke inoiz itxia ez eztabaida ezina izango, baizik eta beti hedatzeari eta gehitzeari irekia, baita ezberdintasunetatik ere. Herrialde Katalandarren kasuan esate baterako ezker independentistaren baitan bi antolakunde iraultzaile orokor eta estrategiko aurki ditzakegu (Endavant eta Poble Lliure). Hausnartu beharreko beste kontu sakon bat Ipar eta Hego Euskal Herriaren banaketa estrukturala da.

Mugimendu ekintzaile historikoak zein erreferentzia komunistek edota beste edozein korrante antolatuk, sortzeko zein herritar batasunaren zein estrategia orokorraren parte izateko eskubidea izango dute, hala nahi baldin badute, beste edozein militanteren baldintza berdintasunean.

Antolakunde internazionalista zein Ikasle Sindikatua eta Antolakunde feminista praktikan existitzen dira, ikuspegi abertzale zein sozialista estrategiko batzuen baitan. Aldaketa beraien posizioa indartzean legoke, beste antolakundeen garrantzia eta baldintza maila bertsuan jartzeko, modu horretan euskal estatu sozialistari begira behar beharrezkoak eta strategiakoak diren mugimendu eta borroken sektorializazio gutxiarazlearekin bukatzeko.

Errepresioaren aurkako antolakundea, beharrian bat izatetik harago, irekitako zauriak zarratzea ekarri beharko lukeen eztabaida eta bategite baten ondorio izan liteke.

Antolakunde iraultzaileari buruz.

Antolakunde berri bat sortu behar dela uste dugu. Alde batetik, teoria iraultzailearen garapena eta praktikalari zein era berean ezker abertzalean historikoki pisua izan duen sozialismo iraultzailearen haria ez eteteko. Askapen borrokarentzat ezinbestekoa dena. Bestalde, antolakunde honen zeregin nagusietako bat herri boterearen eraikuntza litzateke, antolakunde honetako kideak herri mugimenduaren parte izanik. Aldez aurretik aipatzen dugu antolakunde honen funtzioa ez dela ez ezker abertzalearen ez askapen mugimenduaren dinamizazioa, lehenago aipatu bezala horri ezker abertzaleari eta bere antolakunde guztiei baitagokie.

Antolakunde hau herri mugimenduan parte hartzen duten ezker abertzaleko militantziarentzat soilik izango litzateke. Izan ere, azken urteetako esperientziak erakusten digu masa borrokaren gaitetik lan instituzionala gailentzeko joera erabatekoa dela, gainerako borroketan hauteskundeetako erritmoak eta lehentasunak ezarriz. Honegatik, beharrezkoa dela uste dugu herri mugimenduaren baitako eragile berri bat sortzea hauteskundeetako lehentasun eta denboretatik kanpo legokeena, herri sektoreen ahalduntzea bermatuko lukeena eta azkenik, Ezker Abertzale osoa etengabe aberastuko lukeena bere eskakizun eta ekarpenen bidez. Modu honetan beraz, edozein esparrutan dabiltzan ezker abertzaleko militante guztien artean eztabaidatu eta adostutako planifikazio bat derrigorrezko baldintza da askapen nazional eta sozialerako prozesuaren motor eta erreferente papera berreskuratzeko.

Estrategia gisa eraikuntza nazional eta soziala baino ez duen askapen-prozesuaz ari gara, indar-korrelazioan eremuak irabaztearen behar gisa ulertzen dugun estrategiaz, konfrontazio desobedientearen eta auto-antolaketa herritarraren bidez burutzen dena, bai geure herriaren berehalako beharrei erantzun zehatzak eman ahal izateko, bai geure helburu estrategikorantz pausuak emateko beharrezko ditugun baldintza objektibo eta subjektiboak sortzen ditugula bermatzeko ere.

Talde eragilearen erantzuna:

Abianeko Talde Eragilearen ustez, azpi tesi alternatibo hau, lehen batzarretan %81eko babesarekin onartutako tesi orokorrarekin BATERAEZINA da. Izan ere, tesi orokorrak euskal herritar sektore zabalekin partekatutako prozesu independentista eraldatzailearen alde egiten duen bitartean, bederatzi erakundeek azpi tesiak Ezker Abertzalearen egitasmoaren eta antolaketaren inguruko indar bilketari lehentasuna ematen dio. Honela, herri sektoreak hautabide independentistara eramateko ibilbide praktikoa martxan jartzera baino, teoria mailan irudikatutako bederatzi erakunderen blokea antolatzean jarriko lirateke indarrak. Azpi tesi honekin, 80. hamarkadara bueltatuko ginatke neurri batean, Ezker Abertzalea vs. Estatua parametroetara. Parametro horietan eroso dago Estatua. Askapen prozesuaren blokeoa ekarriko luke horrek, zalantzarik gabe.

Proposamen horrek, gainera, ez du bat egiten une hauetan Euskal Herriak eta Ezker Abertzaleak bizi duen errealitatearekin. Erakunde batetik abiatuta beste hainbat erakunde sortzeko prozesua testuinguru historiko jakin batean eman zen, 70. hamarkadan, baldintza ekonomiko, sozial eta politiko jakin batzuetan. Laborategi bateko diseinua egin eta egungo testuinguruan aplikatu daitekeela pentsatzea izugarritzko akats politikoa da. Zein herri edo auzo zehatzetan aplikatu daiteke bederatzi erakundeek eskema? Egungo baldintzetan, indarrak sakabanatu, ahaleginak xahutu eta frustrazioa areagotu besterik ez luke egingo planteamendu horrek.

Azkenik, proposamena praktikan bideraezina dela esan beharra dago. Esaterako, Ezker Abertzaleko erakunde feminista bat egotea aurreikusten du, 80. hamarkadan Egizan zegoen bezala. Alabaina 90. hamarkadaren erdialdean Egizaneke bere burua disolbatu zuen eta handik gutxira Bilgune Feminista sortu zen, herri mugimendu autonomo bezala. Prozesu horretan atzera egitea planteatzen du azpi-tesiak, nolabait. Eta guztiz desegokia ez ezik, ezinezkoa ere bada: Ezker Abertzaleak ezingo luke Bilgune Feministaren edo bestelako herri mugimendu baten inguruan inolako erabakirik hartu.

4.EMENDAKINA: Herri Mugimenduaren dinamizaziorako antolakundea

Emendakinaren norabidea:

Hainbat herri batzarretan, Sortu, Ernai eta LABekin batera arituko litzatekeen laugarren erakunde autonomo bat sortzea proposatu da; kasu gehienetan, halaber, lau erakundeen arteko zuzendaritza kolegiatua sortzea proposatzen da.

Laugarren erakunde honen eginkizuna, herri mugimendua dinamizatzealitzateke. Kasu batzuetan, ezaugarritze nahiko teknikoa ematen zaio erakunde honi. Baina proposamen gehienetan, irismen estrategikoa aitortzen zaio: “Bere eginkizuna ere, besteak beste, ezker abertzalearen epe luzerako planteamenduak egiteko bermea izatea litzateke, eguneroko koiuntura politiko-instituzionalak baldintzatuko ez duela aprobetxatuz”.

Proposamen batzuetan, abangoardia izaera ematen zaio laugarren erakunde honi: “Erakunde iraultzaile eta estrategikoa, herri mugimendu ezberdinak koordinatu eta saretuko dituena. Ezker Abertzalearen abanguardia izan beharko du, herri mugimenduan eraginez ikuspegi estrategikoa txertatuko duena honen borrokan”. Ildo beretik, “Euskal Nazio Askapen Mugimenduari koherentzia iraultzailea emango dion antolakundetzat” definitzen da.

Kontrabotere espazioak sortzeko edota Herri boterea sortzeko eginkizuna ematen diote batzuk. Proposamenetako batean zera aipatzen da: “Euskal Herriko askapen prozesuarentzako, masen eta kalearen desobedientzia, intsumisioa eta beharrezko tentsionamendua aktibatuko du. Hau da, herria ahalduntzea eta askapen marko batean kokatzea du bere funtzioa”.

Proposamen batzuetan dirigismoan ez erortzeko ohartarazpena egiten da: “Antolakunde honek fase berriari erantzun beharko dio (militantzia eta lan filosofia berriarekin, intrusismoa eta dirigismoa baztertuz), eta herri mugimendua 80-90. hamarkadetakoa ez dela ulertuta”.

Talde eragilearen erantzuna:

Lehenik eta behin, esan beharra dago herri mugimendu eta dinamikari begirako kezka logikoa eta beharrezkoa dela. Ilegalizazio garaiak min handia egin dio Ezker Abertzalearen herrigintzarako gaitasunari eta azken urteotan huts egin dugu dinamika hori berpizteko orduan. Bistan da, halaber, herri askotan (ez guztietan) Sorturen jardunean dinamika instituzionalak hartu duela pisu handiagoa, herri mugimenduak baino. Baina konponbidea ez datza beste erakunde bat sortzen, baizik eta Ezker Abertzale bezala herrigintzaren aldeko apustu integrala egitean eta apustu hori garatzeko beharrezkoa den tresna politikoa (Sortu berritua) berrantolatzean. Prozesu independentista eraldatzaileak herrigintza badu ardatz, Ezker Abertzale osoaren eta bere tresna politikoa den Sorturen ardatzak ere herrigintza beharko du izan. Estrategiaren atalean zehaztutako jardunbideetan murgildu beharko da Sortu, proiektu estrategikoaren norabidean: herri aktibazioa, instituziogintza herrigilea, autoeraketa komunitarioa eta praktika diskurtsiboa.

Argudia liteke aurrerantzean dinamika instituzionalak (instituziogintza herrigileak) nagusituko dela Sorturen jardunbidean. Neurri organizatibo zehatzak hartu beharko dira hori horrela ez izateko. Baina gainera, kontutan hartu beharra dago EH Bildu eta EH Baik gorputz propioa hartzen joango direla eta beraz EH Bilduren baitan, norbanakoen parte hartze zuzenaz, emango direla

eztabaidak eta hartuko erabakiak. Ondorioz, Sortu ez da eguneroko kudeaketa instituzionalaz arduratu beharko. Herri Mugimenduaren dinamizaziorako erakunde berri bat sortuz gero, beraz, eremu politiko-instituzionalera mugatuko litzateke Sorturen jarduna eta eremu horretan gero eta zeregin gutxiago izango litzuke.

Bestalde, maiz aipatu izan da, azken urteotako akats bezala, mugimendu osoa ordezkatu baino, Sortu mugimenduaren zati batean bihurtu dela. Badira Ezker Abertzalekoa bai baina Sortukoa sentitzen ez diren lagunak. Bi aukera daude: hori horrela izaten jarraitu dadila ontzat ematea edo Sortu aldatzea. Abianeko Talde Eragilearen proposamenaren arabera, aurrerantzean hori horrela izaten jarraitu baino Sortu eraberritu beharra dago mugimendu osoaren erakunde-sare-tresna politiko izan dadin. Azpi-tesi honen arabera, berriz, Sortu zati bat izaten jarraituko luke eta Ezker Abertzaleko bi zatiren arteko dialektika planteatuko litzateke: eremu instituzionala vs. herri mugimendua. Dialektika hori ez da ezker abertzaleko bi erakunderen artean eman behar, baizik eta prozesu independentista eraldatzailearen planoan, herri agenda eratzeko eta garatzeko orduan. 4.2 atalean azaltzen den bezala, edozein prozesu eraldatzailetan instituzioen eta herri mugimenduaren arteko tentsioa eman behar da, honako paradigmaren arabera: “baldintzak egon badaude, gauzatu itzazu erabakiak -batetik-; sor itzazu baldintzak nik erabakiak gauzatu ahal izateko -bestetik-”

Azkenik, herri mugimenduari begirako erakunde bat sortzeak dituen arriskuez ohartarazi beharra dago. Egia da gauza bat dela erakunde bat sortzea eta beste gauza bat erakunde horrek herri mugimenduari izan behar duen harreman mota eta dinamizazio eredua. Baina funtzio bakartzat Herri Mugimendua sustatzea lukeen erakunde bat sortuz gero, dirigismoan erortzeko arriskua handiagoa da.

Horrek ez du esan nahi Ezker Abertzaleak herri mugimendu eta herri egitasmoetan eragin behar ez duenik. Hala egin behar du, ezinbestean. Ezker Abertzale osoak. Oinarri soziala herri egitasmoetan murgildu eta aktibatu beharra dago, prozesu independentista eraldatzaileari begira. Eta Ezker Abertzalearen bilgune politikoan bilakatutako Sortu eraberrituak, hori horrela izateko neurriak hartu beharko ditu. Eta beti ere, Herri Mugimendu eta egitasmoen autonomiarekiko erabateko errespetutik abiatuta.

5.EMENDAKINA: Sortu, LAB eta Ernairen arteko zuzendaritza partekatua

Emendakinaren norabidea:

Hainbat herri-batzarretan Ezker Abertzaleko antolakundearen arteko zuzendaritza kolegiatua proposatu da. Kasu batzuetan egungo hiru antolakundearen artekoa, beste batzuetan balizko laugarren antolakunde batekin batera.

Proposamen ezberdinetan aurkeztutako ideei nagusiak jasotzen ditugu hemen:

- Marko hori nazio mailan ez ezik (Zuzendaritza Estrategikoa edo Bilgune Politikoa bezalako terminoak proposatzen dira), herri mailan ere sortu behar da.

- Antolakunde guztiek pisu eta erantzukizun berdina izango dute. Ez da hierarkiarik egongo, horizontaltasunean oinarrituriko funtzionamendua izango du. Kotsentsuzko erabakiak hartuko dira.
- Zuzendaritza kolegiatua izanda ere, antolakundeek autonomia izango dute, hau da, bata besteari eskuhartzerik egin gabe.
- Zuzendaritza marko horren funtzio nagusia ezker abertzale osoaren estrategia politikoa adostea izango da, guztion arteko bide-orria adostea. Zuzendaritza eta koordinazio lanak egin beharko ditu.

Honelako markoa proposatzeko arrazoi nagusiak dira:

- Zuzendaritza estrategikoa egingo duen gune baten beharra. Erritmo elektoral eta koiunturen ginetik.
- Mugimendu izaera barnebilduko duen gune baten beharra. Borroka eremu guztietan dauden eragileak ordezkatuak egon daitezen eztabaida estrategikoetan.
- Ezker Abertzalearen potentzialitate osoa askatzea.
- Erakundeen arteko jarrera paternalistak baztertzea.

Ekarpen guztiek orain artekoa konpartitzen badute ere, badira dinamizazioa eta erreferentzia politikoaren inguruko bi iritzi desberdinak; batzuk, ezker abertzalearen erreferentzia eta dinamizazio lan nagusia Sorturi aitortzen diote, eta beste batzuen ustez erreferentzia politikoa ezin da antolakunde bakar baten baitan kokatu, eta mugimenduaren erreferentzia politikoa ezker abertzaleko antolakunde guztiez osaturiko gune hori izan behar duela aipatzen dute.

Talde eragilearen erantzuna:

Zuzendaritza ari garela, lehenik eta behin, zera nabarmenduko genuke: kultura eta praktika politiko berriaren arabera, zuzendaritza oinarri sozialean dago; Abian prozesuan egin bezala, erabaki estrategikoak militantziak hartu behar ditu, pertsona bat ahots bat, pertsona bat bozka bat irizpidearen arabera. Hau esanda, argi dago militantzia ez dela unean unean gogoeta estrategikoetan murgilduta egongo eta maiztasun jakin batez ariketa horri helduko liokeen gune nazional bat edo batzuk beharko direla.

Talde Eragilearen proposamena, berriro diogu, Ezker Abertzalea mugimendu bateratu eta era berean anitz bezala berrosatzea da. Ezker Abertzaleak mugimendu osoaren aberastasuna jasoko duen egitura-sare-tresna politikoa behar du: Sortu eraberritua. Ezker Abertzaleko kide orok izan behar du bere lekua eta bere hitza bertan. Eta Sortu eraberrituko duen Kongresuan erabaki beharko dugu denon artean zein antolaketa behar dugun hori horrela izateko. Abianeko Talde Eragilearen ustez, gutxienez bi plano aurreikusi beharko dira maila nazionalean: alde batetik, eguneroko dinamika politikoa bideratzeko zuzendaritza, oinarri sozialak hautatutakoa; eta beste alde batetik, maiztasun jakin batekin hautabide independentistaren garapenari begira gogoeta estrategikoak egiteko beharrezkoak den gunea edo guneak eta prozedurak. Gogoeta gune eta

prozedura horietan lan instituzionalean, sindikalgintzan, gazte eremuan, herri mugimendu nahiz herri egitasmoetan diharduten Ezker Abertzaleko kideek parte hartu beharko dute. Berriro diogu, hau guztia Sorturen Kongresuan zehaztu beharko du Ezker Abertzaleko militantziak, horren diseinua LAB eta Ernairekin konpartituz.

Tesi alternatiboak planteatzen duena, alegia, Sortu, LAB eta Ernairen arteko zuzendaritza kolegiatuak, bi hutsune ditu Talde Eragilearen iritziz. Batetik, suposatutzat ematen du Sortu orain arteko Sortu izaten jarraituko duela, alegia, ez dela Ezker Abertzalearen osotasunari erantzuten dion tresna izango, baizik eta osotasun horren zati bat.

Bestetik, LAB eta Ernairen autonomiaren kaltetan joan daiteke. Azken hamarkadetan egindako garapenaren ondorioz, LAB erakunde independentea da eta LAB binkulatzen duten erabakiak LABen bertan hartzen dira. Ernaiko erabakiak ere bere kideek hartzen dituzte. Horrela izango da aurrerantzean ere. Sortu, LAB eta Ernairen arteko koordinazio markoak egon daitezke (eta koordinazio marko horiek beste eragile batzuekin konpartitu daitezke ere, hezkuntzan edota borroka feministan egin izan den bezala), baina koordinazio marko horiei zuzendaritza funtzioa emanez gero, gatazka sor liteke zuzendaritza marko horiek hartutako erabakien eta erakunde bakoitzak hartutakoen artean. Ondorioz, zuzendaritza kolegiatuaren eredia gauzatzeko arazo organizatiboak aurreikus daitezke.

Azkenik, kontutan hartu beharra dago hiruko eskema mugatua dagoela behar bezalako gogoeta estrategikoak egiteko. Talde Eragileak proposatzen duena harago doa: hiru erakundeetan dauden Ezker Abertzaleko kideez gain, lan instituzionalean, herri mugimendu eta egitasmoetan nahiz gatazkaren konponbiderako eremuan diharduten kideak bildu beharko dira Sortuk dinamizatutako gogoeta gune eta prozedura estrategikoetan.

Hau dena esanda, zera gehitu beharko litzateke: Sorturen Kongresuan zehazten den formula edozein dela ere, ezin liteke erabaki estrategikorik hartu LAB eta Ernairen adostasunik gabe. Honela, erabaki garrantzitsu eta estrategikoetan, adostasun bikoitza eragin beharko litzateke: batetik, Ezker Abertzale osoak Sorturen baitan lortu beharreko adostasuna; bestetik, LAB eta Ernairekin lortu beharrekoa.

4) HOBKUNTZAK ETA EKARPENAK

Aurrez aipatu bezala, emendakinez gain hainbat eta hainbat ekarpen eta hobekuntza proposamen jaso ditugu akta eta bestelako dokumentuen bitartez. Guztiak hemen aipatzera ezinezkoa da baina azken txostena aberastera bideratuko diren ideia nagusien bilduma ondorengo puntuetan duzue:

a. Abian, euskaratik eta euskaraz. Euskal Herri Euskalduna

“Abian, euskaratik eta euskaraz” izeneko emendakinetik hartuta-moldatuta, honako puntu hauek gehituko genituzke ABIAN txostena hobetzeko:

- Euskara Euskal Herriko berariazko hizkuntza da, berau jakitea eta erabiltzea herritar ororen eskubidea da eta herri gisa bereizten gaitu. Asimilazio eta ordezkapen prozesu luze

baten ondorioz, euskararen hiztun elkarte ez-oso da, desegituratuta dago eta euskara estatu hizkuntzekiko egoera asimetrikoan dago. Bortxaz ezarritakoa da pairatzen dugun euskaraz bizitzeko ezina, egiturazkoa dena

- Kapitalismoa uniformatzailea da, izatez eta helburuz. Etnozidio kulturala errentagarria zaio. Euskarak egiten gaitu euskaldun eta Euskal Herri. Euskaldun eleaniztunez eraiki behar dugu Euskal Herria, euskaratik eta euskaraz, aldarrikapenez gain gure jarduera politiko guztian erabilera ardatz.
- Euskara lehen hizkuntza izango da. Gure proiektu politikoan euskarari aitortzen zaio hizkuntza nagusi izaera Euskal Herrian, estatu-hizkuntza izaera. Euskarari lehentasuna emango dion elebitasuna garatuaz bidea jorratuko dugu euskal estatuan, jendarte eleanitzeko estatua izanik, euskara izan dadin estatu-hizkuntza izaera izango duena. Beraz, euskal estatuko erakundeek euskaraz egingo dute lan.
- Euskararen eta euskal kulturaren aldeko borroka ere gizarte emanzipazioaren parametroetan ulertzen dugu. Euskal Herri euskalduna aldarrikatzen dugu eta helburu hori lortzeko berreuskalduntzea da aktibatu beharreko bidea. Konfrontazio soziolinguistikoa eragin behar da, politikagintzaren agendara ekarri eta euskara justizia sozialaren aldeko borroka gisa planteatu. Izan ere, kultura minorizatu baten aldeko jarrera joera menperatzaileen kontrako insubordinazio posizio bat da; gure komunitateak euskaraz bizitzeko duen eskubidea baita hizkuntza gatazkaren erdigunean dagoena, gizarte justiziarik loturiko afera bat. Euskaraz bizitzeko eskubidea ezin da baldintzatu, euskal jendarte osoaren gutxieneko demokratikoa da eta.

b. Feminismoa ardatz, birformulatu/osatu

Ugari izan dira ikuspegi feministatik jasotakoa ekarpenak, hobekuntzak zein kezka ezberdinak ere. Beraz, gaiak duen dimentsio estrukturala aintzat hartuta, bada Abianeko talde eragiletik zenbait argipen zein konprosimoko agertzeko beharra.

Lehenik eta behin, hona hemen jasotako ekarpenen norabidea:

- Gehiengoaren aldetik, nahiz eta Abian dokumentuak gure proiektu politikoaren ardatz nagusi gisa aitortu feminismoa, aipatzen da dokumentuan ez dela ikuspegi integral gisa jasotzen, azpi-tesi guztietan ez duela islarik. Norabide berean, ez dela egoki ikusten proiektuaren ikuspegi feminismoa ekarpen gisa kokatzea, helburu gisa baizik.
- Kontrako nobarideko ikuspegiak jaso da ere: feminismoari ematen zaion zentralitateak beste gabezi batzuk agerian uzten dituela (ekologismoa, xenofobiaren kontrako borroka...). Baita, kasu batean, feminismoa proiektuaren definizioetik ezabatzea proposatu ere.
- Honela, ikuspegi ezberdinak jasotzen dira Abian dokumentuak egiten duen proiektu politikoaren konpaktazio ahaleginaren inguruan:
- Badira Euskal Sozialismoaren formulazio horri feminista izaera gehitzearen aldekoak, izenaz haragoko eragina baduelako.

- Baina baita, Euskal Sozialismoaren baitan, izenean baino, izanean dimentsio feminista hori hobe txertatzeko beharra agertzen dutenak.
- Dokumentuan zehar erabiltzen den terminologia txukuntzearen beharra: parekidetasuna-berdintasuna, jendarte-gizarte, neoliberalismo patriarkal-kapitalismo patriarkal...
- Gatazkaren ondorioen atalari dagokionez, egokiago ikusten da gatazka armatuaz aritzea, eta aintzat hartzea gatazka ezberdinen existentzia. Era berean, gatazka armatuaren ondorioen baitan, garrantzi berezia ematen zaio errelatoaren eraikuntzari.
- Antolaketaren atalean, zehaztapen gehiagoren beharra agertzen da, prozesu feminista berrartzearen eskaerarekin batera.

Ekarpenetan ikuspegi ezberdinak egon badaitezke ere, orokorrean feminismoa gure proiektu zein praktika politikoaren ardatz gisa kokatzeko beharra azpimarratzen da. Hori izan da hain zuzen Abian dokumentuan garatu nahi izan dugun ikuspegia, zenbait gabezi eta eztabaidagai baditugula onartuta ere (dokumentuan islatu dugun bezala). Zentzu honetan, eta ekarpenak dokumentuaren berridazketan aintzat hartuko baditugu ere, arreta jarri nahiko genuke Abian prozesuak etorkizunerako finkatzen dituen erronketan.

d. Ekologismoa

Euskal sozialismoa azken hamarkadetan gero eta ondorio nagarmenagoak dituen krisi ekologiko globalaren errealitatean kokatzen da. Horretan guztian dugun arduraren jabe izanda, ekonomia globalizatuak tokiko eta munduko ingurune natural eta sozialetan sortzen dituen desorekak eta injustiziak saihestuko dituen garapen eredu sostengarria dugu helburu.

e. Laikotasuna

Aniztasunaren aitortza egitearekin batera, laikotasunaren inguruko posizioa jaso beharko luke txostenak. Xenofobiaren aurkako jarrera tinkoa azaltzea ere atera da hainbat ekarpenetan.

f. Internazionalismoa

Herri eta herrietako langilerien arteko elkartasuna eta elkar ekintza funtsezkoak dira eredu berri bat eraikitzeko, maila globalean jokatzen duen kapitalismo inperialistari aurre egiteko.

g. Antimilitarismoa:

Txostenean ez da aipatzen ere; lerro lodietan bederen jaso behar da.

h. NATOren inguruan:

Argitu beharra dago atal honen inguruko dikotomia. gure proiektu politikoaren norabidean ezker abertzalea argiki NATO eta egungo Europa inperialista eta patriarkalaren kontra agertzen da. Beste gauza bat da, estrategiaren garapenean, etorkizuneko euskal estatuak (herritarrak) Europan eta hainbat esparruen pertenezia erabaki beharko duela, eta beste gaietan bezala, egiten dugun lana eta indarraren arabera izango da erabaki horren norabidea.

i. Euskaraz bizitzera iristeko eraldaketa soziala eragin behar dugu, hizkuntza komunitate euskalduna berrosatuz

Ilido honetan euskaraz bizitzera iristeko eraldaketa soziala eragin behar dugu, hizkuntza komunitate euskalduna berrosatuz, euskararen gutxieneko demokratikoen zehaztapena landuz, indar metaketa eta aliantzak eginez eta erakundeekiko interlokuzioa garatuko duten bilgune ireki eta zabalak sortuz.

j. Hizkuntza Politiko Berria ardatz

Euskarari dagokionez Hizkuntza Politiko Berria dugu ardatz. Euskararen hiztun elkarte berrosatzeko, euskara berreskuratuko duen hizkuntza politika behar da, euskal herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko, eta euskararentzat lortzeko Europako estatuen hizkuntza ofizialek beren lurraldeetan dituzten estatus berdina eta parekotasunezko egoera eramu juridikoan, politikoan eta soziolinguistikoan. Instituzioek bermatuko dute euskararen gutxieneko demokratikoa, euskaraz jakin eta lan/bizitzeko eskubidea, alegia. Horren aldeko eragile eraginkorrek izateko Euskararen Lege Berria adostea eta indarrean jartzea bultzatuko dugu.

k. Ikuspuntu sozialaren txertaketa proposamen taktikoetan

Langile klasearen balditzak hobetzera bideratutako proposamen taktikoak ere jaso behar dira. Gutun soziala izan daiteke tresna baliagarrietako bat.

l. Nazio identitatea

Proiektu eta ekimen alternatiboak lantzen eta eraikitzen ari diren jende eta eragileen artean, badira ainitz ez direnak euskaldun sentitzen. Ber lurraldean bizi gira hala ere eta ber erronkak partekatzen ditugu (communauté de destin). Zerk erakarriko ditu independentismoratu? EHren noziora?

m. Euskararen ezagutzan ez ezik, euskararen erabileran ere eredu izan behar du Ezker Abertzaleak

Era berean, aurrenez bere burua berreuskalduntzen ez duen indar politiko edota mugimenduak ez du Euskal Herriaren berreuskalduntzea bermatuko. Ardura politikoak zein instituzionalak hartzen ditugunean hizkuntza arloan ahalduntzeko konpromisoa ere hartuko dugu. Horregatik, euskararen ezagutzan ez ezik, euskararen erabileran erre eredu izan behar du Ezker Abertzaleak. Beraz, 1996an finkaturiko euskararen erabilera irizpideak berretsi eta praktikan bideratzeko konpromisoa hartzen dugu.

5) ETORKIZUNeko ERRONKAK ETA ASKATU BEHARREKO KORAPILOAK

Sarri esan dugun bezala ABIAN entzute eta eztabaida fasearekin ez da ezer amaitzen. Sei hilabetetako prozesuak ez du ematen atera diren erronka eta korapilo ezberdinak askatzeko aukera. Dena den eta sarreran aipatu bezala, ABIAN Talde Eragilearen gestio informean jasoko ditugu askatu gabe geratzen diren korapilo ezberdinak. Hona hemen, momentuz, akta guztien azterketetatik gehien errepikatzen joan direnak:

- a. **Proiektu politikoaren ardatzen garapenean sakondu beharko dugu** (euskara, feminismoa...)
- b. **Sozialismoa**: eraiki nahi dugun jendarte sozialista nolakoa izango den ebatzi beharko da (subjektu eraldatzaile - iraultzailearen definizioaren gaurkotzea)
- d. **Nazioarteko politikaren argitzea**: Nazioarteko erakundeen inguruko azterketan sakontzea (EB eta NATO kasu); eta gure parte hartzearen inguruko hausnarketa egitearen premia. Ikuspegi estrategiko eta jokabide praktikoaren argipenaren beharra atzeman dugu.
- e. **Ekologismoa**: etorkizunari begira dugun erronka nagusietakoa da, nola egin gure eredia jasangarria izan dadin? Nola abiatu gaurtik transizioa?
- f. **Estatuaren izaera konfederalaren zehaztapena**: Proiektua eta bide orriaren arteko uztarketa. Nolako estatugintza halako estatua ariko garela eraikitzen diogu txostenean. Urrats ausarta egiten dugu gure herriaren erakundetzea modu horizontalean irudikatzean, boterea herritarren eskuetan uzteko formula eraginkorrena baita. Ez da aski ordea eredu hau lerro loditan azaltzearekin, benetako lanketa bat egin behar da eredia eta eredia eraikitzea eramanen gaituen praktika politikoa zehazteko.
- g. **Euskal Herriko estrategia feministaren birkokapena eta Ezker Abertzalearen proiektu eta praktika politikoan koherentzia feminista bermatzeko bitartekoen (prozesu feministaren berrezaugarritzea) zehaztapena.**
- h. **Gatazkaren konponbidearen lerroaren sakontzea eta zehaztapena**
- i. ...